



GOBERNU BATZARRA

2019.11.26

Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Nerea Letamendia Belloso
Begoña Tolosa Mendia
Patxi Amantegi Zubiria
Xabier Balerdi Tolosa
Jose M^a Villanueva Telleria

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko Kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi azaroaren 26an, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2019ko azaroaren 19ko bilkurako akta onartzea.
2. Onartzea Tolosako Udaleko 2019ko ekitaldiko Lan Eskaintza Publikoa.
3. 2019/1951 Dekretuaren berri ematea: 2019/55 Faktura-zerrenda.
4. Dekretu hauen berri ematea: 2019ko azaroaren 8tik 15era (dk2019/1859-2019/1910).

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2019ko azaroaren 19an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO 2019KO EKITALDIKO LAN ESKAINTZA PUBLIKOA.

AURREKARIAK

I.- Tolosako Udalbatzak, 2018ko urriaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, besteak beste, hasierako onarpena eman zion *Giza Baliabideak arrazionalizatzeko 2018-2020 bitarteko Programa/Enplegu Planaren 1. Faseari*. Ebazpen hauek argitaratu ziren udal web orrian, Irargarki Taulan, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (214 zk.an, 2018ko azaroaren 7an). Halaber, Enplegu Planaren Memoria, Lanpostuen Zerrenda eta Lan Eskaintza Publikoen eta Hautaketa Jardunbideen egutegien proposamenak udal sarean jarri ziren, langile guztien eskura, 2018ko azaroaren 8tik aurrera. Horretaz gain, Lanpostuen Zerrendako



hainbat lanposturen ordainsarrietan akats numerikoak zeudela ikusita, zuzenketak egin ziren informazio publikoko epearen barruan, beti ere alegazioak aurkezteko epea amaitu aurretik.

Informazio publikoko epean alegazioak aurkeztu ondoren, 2018ko abenduaren 10ean egindako Osoko Bilkurak aztertu eta ebatzi zituen. Halaber, dokumentuak behin betiko onespena jaso zuen.

II.- Bilkura horretan, Udaltzako Udaleko 2018ko ekitaldiari dagokion Lanpostuen Zerrenda onartu zuen eta behin betiko onespena jaso zuen.

III.- 2019ko lan eskaintza publikoan sartzea proposatu diren plazak eta lanpostuak:

III.1.- Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren 1. Fasearen helburu nagusiak ondoko hauek dira:

1. Aldi baterako lanpostuak eta funtzioak egonkortzeko 2017ko eta 2018ko Estatuko Aurrekontuak arautzen dituzten legeak ematen dituen aukerez baliatzea, Udaleko plantilla egonkortzeko eta prekarietate-maila gutxitzeko, aurreikusten diren hautaketa-jardunbideetan bereziki kontuan hartuz Tolosako Udaleko udal lanpostuetan izandako esperientzia.
2. Premia duten lanpostuak sortzea, honako arrazoi hauetan oinarrituta:
 - 2.1. Legeak xedaturiko funtzioak eta zereginak betetzea: diruzaina, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko delegatua, Kontratazio arloko teknikaria.
 - 2.2. Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentuan epe laburrean aurreikusten diren aldaketa eta gabeziei aurre egitea, beti ere Legeak xedatzen dituen mugak errespetatuz.
 - 2.3. Udalaren eskumenekoak diren eta ezinbestekoak diren zerbitzuak ematea: Gizarte Zerbitzuak, Udal Ondarearen Kudeaketa, UDATE, Sustapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Feriak, etab.
3. Hasiera batean amortiza edota alda daitezkeen lanpostuak identifikatzea.
4. Tolosako Udaleko sektore publikoa berrantolatzea: hainbat sozietate instrumentalen disoluzioa bideratzea; sozietate haietan burutzen diren eta funtzio publikoko izaera duten eginkizunak administrazio publikoak bereganatzea; langileak hautatzeko garaian publizitatea, meritua, gaitasuna eta berdintasunean oinarritutako prozesuak baliozkotzea, eta, azken finean, Tolosako Udalaren sektore publikoa arrazionalizazio eta eraginkortasunean oinarritzea, funtzio publikoak bermatuz. Halaber, amortiza daitezkeen lanpostuak amortizatzea, Udalaren beharretara egokitzeko. Era honetan, plangintza honek Erretengibel SARI eta Tolosa Lantzen SARI eragingo die.



5. Plantillaren malgutasun eta mugikortasunerako tresnak sortzea, giza baliabideen optimizazioa eta zereginetik egokitasuna bermatzeko, beti ere langileen eskubideak kontuan hartuta: plazen definizio orokorrakoak; barne-sustapeneko jardunbideak; lanpostuen birbanaketa eta langileen berrizendapena; eta abar. Horretaz gain, sortzen diren singularizatu gabeko plaza berriak ahalik eta era zabalenean definituko dira.
6. Udaleko gainontzeko sailetan/azpisailetan izan daitezkeen gabeziak eta hutsuneak detektatzea, hasiera batean, Bigarren fasean garatu behar den prozesuaren kalterik gabe.
7. Tolosako Udaleko Lanpostuen Zerrenda egokitzea.

Programazio honen barruan, 2019ko Lan Eskaintza Publikoa zehazteko garaian, Estatuko Aurrekontuak arautzen dituen 6/2018ko Legeak jarritako mugak kontuan hartu daitezke, hain zuzen, aurrekontu mailako muga eta birjarpen tasari dagokiona edota, kontuan hartuta 2019. urtean Estatuko Aurrekontu orokorrak ez daudela onartuta, beste interpretazio bat ere egon daiteke Lan Eskaintza Publikoa onartu ahal izateko.

III.2.- Egoera honen aurrean, ondoko lanpostu eta plaza hauek hornitzea proposatzen da:

III.2.1.- LANPOSTUAK BETETZEA LEHIAKETAREN BITARTEZ: Diruzaina.

III.2.2.- PLAZAK HORNITZEA ENPLEGUA EGONKORTZEKO JARDUNBIDEAN: peoiak (2), arkitektoa, berdintasun teknikaria (1), ikuskatzaile-delineatzailea, balio anitzeko laguntzailea eta udaltzainak (3).

III.2.3.- PLAZAK HORNITZEA OPOSIZIO-LEHIAKETA LIBREAN: arkitekto-teknikoa (2), Kontratzioko teknikaria, Txistulari Bandako zuzendaria eta txistu irakaslea eta udaltzainak (4).

III.2.4.- PLAZAK HORNITZEA EPAI BIDEZ MUGAGABEAK DEKLARATUAK IZAN DIREN LANPOSTUAK, OPOSIZIO-LEHIAKETA LIBREAN: biolontxelo, perkusio, tronpa, dultzaina, tronpeta, oboe, kontrabaxu eta koral irakasleak.

III.2.5.- PLAZAK HORNITZEA ENPLEGUA KONTOLIDATZEKO JARDUNBIDEAN: kirol instalazioetako kudeatzailea.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarritzko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, 10. artikuluan, bitarteko funtzionarioen araubidea xedatzen du, honako era honetan:



- "1. Bitarteko funtzionarioak dira, urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta bitarteko funtzionario izendatutakoak karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko, hauetako bat gertatzen denean:*
- a) Plaza hutsak daudenean, baldin eta ezin badira karrerako funtzionarioekin bete.*
 - b) Titularrak aldi baterako ordeztzeko denean.*
 - c) Aldi baterako programak betetzeko denean; programa horiek ezin izango dute hiru urtetik gorako iraupena izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango dira, estatutu hau garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeen bidez.*
 - d) Zeregin kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa dagoenean; gehienez ere sei hileko epe baterako izango da, hamabi hileko tarte batean.*
- 2. Bitarteko funtzionarioak hautatzerakoan prozedura bizkorrak erabili behar dira, betiere, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publikotasun-printzipioak estu errespetatuta.*
- 3. Bitarteko funtzionarioak kargutik kenduko dira 63. artikuluan jasotako arrazoiren bat dagoenean, eta, horrez gain, bere izendapena eragin zuen arrazoia indarrik gabe geratutakoan.*
- 4. Artikulu honetako 1. zenbakiko a) letran jasotako egoeran, bitarteko funtzionarioek diharduteneko plaza hutsak enplegu-eskaintzan sartu beharko dira, izendapena egin deneko ekitaldi horretan bertan, eta, hori horrela egitea posible ez bada, hurrengo ekitaldian, lanpostua amortizatzen ez bada behintzat.*
- 5. Bitarteko funtzionarioei, beren izaeraren ezaugarriak aintzat hartuta egoki denean, karrerako funtzionarioen araubide orokorra aplikatuko zaie.*
- 6. Aldi baterako programak betetzeko edo zeregin gehiegi dagoelako hamabi hilabeteke epearen barruan gehienez ere sei hilabeterako izendatzen diren bitarteko langileek agintzen zaizkien eginkizunak bete ahal izango dituzte haiek hartu dituen administrazio-unitatean edo eginkizun analogoak betetzen dituen beste administrazio-unitateren batean, baldin eta unitate horiek, hurrenez hurren, aldi baterako programa horren aplikazio-eremuan parte hartzen duten unitateak badira –artikulu honetan adierazitako epemugarekin– edota zeregin gehiegi badute"*

Beraz, aipatu Legearen 10.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, bitarteko funtzionarioen bidez hornitzen diren lanpostuak, Lan Eskaintza Publikoan sartu behar dira, bitarteko funtzionarioa izendatzen den urtean edo hurrengoan, eta era finkoan hornitzen dira edota amortizatu egin behar direla.

II.- Toki erakundeen kasuan, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 91. artikuluan ondokoa xedatzen du:



- Tokiko korporazioek urtero osatuko dutela euren lan eskaintza, estatuko oinarrizko araudian ezarritako irizpideak kontutan hartuz.
- Pertsonal guztiaren hautaketa, izan funtzionarioak edota lan-itunpekoak, lan eskaintza publikoaren arabera egingo direla, deialdi publikoaren bidez eta berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak bermatuko diren sistemen bidez - lehiaketa, oposizio edota oposizio-lehiaketa irekia -.

Zentzu berean, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenei buruzko Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekreturen 128. artikuluan xedaturikoaren arabera, Toki-Korporazioek urtero ekitaldiari dagokion Lan Eskaintza Publikoa onartu eta argitaratu behar dute, aurrekontua onartu eta hilabeteko epe barruan, funtzio publikoak ezarritako legediarekin bat etorritz.

Artikulu horren 2. atalak behin betiko pertsonala izendatzeko ondoko betebeharra ezartzen du: *“2. No podrá nombrarse personal interino para plazas que no se hayan incluido en la oferta de empleo público, salvo cuando se trate de vacantes realmente producidas con posterioridad a su aprobación.*

El personal que ostentare la condición de interino cesará automáticamente al tomar posesión como funcionarios de carrera los aspirantes aprobados en la respectiva convocatoria. Sólo podrá procederse al nombramiento del nuevo personal interino para las plazas que continúen vacantes una vez concluidos los correspondientes procesos selectivos.”

III.- Funtzio publikoko legedian, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Batgina onartzen duenak, 70. artikuluan, lan eskaintza publikoari dagokionez, honako hau xedatzen du:

“1. Giza baliabideen beharrianak daudenean, eta, horretarako aurrekontuko diruizendapena egonda, langile berriak sartzeko beharrezko denean, enplegu publikoaren eskaintza egin behar da, edo langile-beharrianak betetzeko antzeko beste kudeaketatresnaren bat erabili behar da; horretarako, beharrezkoa izango da sortutako plaza horiek (eta, gehienez, ehuneko hamarreko kopuru gehigarria) betetzeko hautaketaprozesuetarako deialdia egitea eta deialdia egiteko gehieneko epea ere finkatzea. Nolanahi den ere, enplegu publikoaren eskaintza edo erabiltzen den antzeko tresna hori betetzeko, hiru urteko epea izango da gehienez ere, eta epe hori ezingo da inola ere luzatu.

2. Administrazio publikoen gobernu-organismoek urtero onartuko duten enplegu publikoaren eskaintza edo erabiltzen den antzeko tresna, dagokion aldizkari ofizialean argitaratu behar dute.

3. Enplegu publikoaren eskaintzan edo erabiltzen den antzeko tresna horretan giza



TOLOSAKO
UDALA

baliabideak antolatzekeo planetatik datozen neurriak jaso ahal izango dira.”

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegatu publikoei aplikagarri zaien Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 23. artikulua, lan eskaintza publikoen inguruan ondokoa xedatzen du:

1. Las necesidades de recursos humanos con asignación presupuestaria que no puedan ser cubiertas con los efectivos de personal existentes en cada Administración Pública serán objeto de oferta de empleo público.

2. La oferta de empleo público expresará las plazas vacantes que deban cubrirse, tanto de funcionarios como de personal laboral fijo, clasificadas por categorías laborales o por grupos, cuerpos y escalas de funcionarios. La inclusión de dichas plazas no precisará de la realización de concurso previo, respecto de los correspondientes puestos de trabajo, entre quienes ya tuvieren la condición de funcionarios.

3. No podrán convocarse pruebas selectivas para la provisión de plazas cuya cobertura no se halle comprometida en la oferta de empleo público.”

Lege horren 24. artikulua xedatzen du lan eskaintza publikoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dela, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, berriz, eskaintzen laburpena.

IV.- 2018. ekitaldiko Estatuko Aurrekontu Orokorak onartzen dituen 6/2018 Legearen 20. artikulua lan eskaintza publikoen inguruan honako hau xedatzen du:

19. art. - Lan Eskaintza Publikoa edo antzeko beste tresnaren bat pertsonal-beharren hornikuntza kudeatzeko.

Legeak zehaztutako sektore publikoan pertsonal berria txertatzeko, gero adierazten diren ataletan xedatutako mugak eta baldintzak bete behar dira. [Honako hauek salbuetsita daude: merkataritza-sozietate publikoak eta enpresa-entitate publikoak, sektore publikoko fundazioak eta nagusiki Sektore Publikoa osatzen duten Administrazioek eta Organismoek parte hartutako partzuergoak, horiek denak, hurrenez hurren, Lege honen eta Estatuko Organo Konstituzionalen hogeita zazpigarren, hogeita zortzigarren eta hogeita bederatzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoari jarraituko baitiote]:

- Salbuespena: aurreko EPE batzuei dagozkien hautapen-prozesuetatik datorren pertsonala txertatzea.
- 1. muga: Gastuen aurrekontuaren 1. kapitulua. (*homogeneotasun-egoeren haustura-kasuetan izan ezik, Programa honetan argudiatzen den bezala*).

Administrazio Publikoetan pertsonala txertatzeari buruzko xedapenak:

- a) Aurreko ekitaldietan aurrekontu-egonkortasunari eta zor-publikoari eta gastu arauari buruzko helburuak bete dituzten Administrazio Publikoak (*Tolosako Udala*):



1. Birjarpen-tasa, ehuneko 100.
 2. Tasa gehigarria, % 8, giza baliabideen errefortzua behar duten sektoreetan, betiere aurrekontu-egonkortasun eta finantza-jasangarritasunaren esparruaren barruan. *Portzentaje gehigarri hau lehentasunez erabiliko da jarraian azaltzen diren egoeraren bat gertatzen denean:* zerbitzu publiko berriak ezartzea, urte-sasoia araberako jarduera jarduera turistikoaren eraginez handitzea edo espero diren erretiro-kopurua altua izatea.
 3. Aipatutako portzentajea % 10 izango da toki-erakundeentzat, baldin eta, aurreko baldintzaz gain, zor-finantzarioa 2017ko abenduaren 31n amortizatua badaukate.
 4. Bere birjarpen-tasa edozein sektore edo kolektibotan, berdin dio zeinetan, metatzeko aukera.
- b)** Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetarako, Autonomietako Polizia Kidegoetarako eta Udaltzaingotarako, birjarpen-tasa izango da ehuneko 115.
- c)** Birjarpen-tasa gehigarria, % 5, udalerrri guztiek, baldin eta, apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 26.1 artikulua aplikatuta, 2013tik 2017rako denboraldiko ekitaldiren batean zerbitzu publiko gehiago emateko legezko betebeharra izan badute, urte horietako urtarrilaren 1ean eguneratutako udal-eroldaren araberako zuzenbidezko biztanleria hazteagatik. Tolosako Udalak ez luke beteko baldintza hau, aipatu Legearen 26.1 xedaturiko biztanleen kopuru-muga ez duelako bete (20.000 biztanle)
- d)** Giza baliabideen birjarpen-tasaren kalkulua: aurreko urteetan bezala. Espediente honen kasuan, kontuan hartu beharko dira 2017an eta 2018an emandako jubilazioak, halaber 2019an aurreikusten direnak, Lan Eskaintza Publikoak onartzeko garaian.
- e)** Giza baliabideen birjarpen-tasatik eratorzen den gehienezko plaza-kopuruaren barruan ez dira aintzat hartuko barne-sustapeneko prozeduren bidez hornitzeko ateratzen diren plazak, ez eta epai judizial bidez mugagabe ez-finkotzat jotako pertsonalari dagozkionak ere.
- f)** **ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO TASA GEHIGARRIA**, 2017ko Aurrekontuei buruzko Lege Orokorrean (ALO) dagoenaz gain:
1. Barne hartuko ditu izaera estrukturaleko plazak.
 2. Aurrekontu-zuzkidura dutenak.
 3. Aldi baterako lotura duen langileek betetzen dituztenak. Posible al da posturik ez duten plazak aintzat hartzea? BAI, AURRETIK LANPOSTU-ZERRENDA (LPZ) GASTUA HANDITU GABE ALDATUZ GERO. BIRKALIFIKATU DIREN PLAZAK ERE SAR DAITEZKE, betiere eginkizunak aldatzen ez badira. Auzitegi Gorenak 2016ko azaroaren 29an emandako bi epai: 1003/2016 eta



TOLOSAKO
UDALA

1022/2016. Tolosako Udalaren kasuan, 2018ko Lan Eskaintza Publikoak eragiten dituen lanpostu guztiak sailkaturik daude Lanpostuen Zerrendan.

4. Gutxienez 2014ko abenduaren 31 ezkerro, aldi baterako eta etenik gabe beteta egon direnak.
5. Honako sektore eta kolektibo hauetan: administrazio-zerbitzuetako eta zerbitzu orokorretako langileak, ikerkuntza-arlokoak, osasun publiko eta ikuskatzailea medikokoak, bai eta beste zerbitzu publiko batzuk ere. Guztiak, Toki Administrazioan, 2018ko Estatuko Aurrekontuak onartzen dituen Legearen xedapenak kontuan hartuz.
6. Tasa gehigarri honi dagozkion Enplegu Publikoko Eskaintzak: onartu eta dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratu behar dira, 2018, 2019 eta 2020ko ekitaldietan. Egonkortze prozesuen barruan dauden plazak aldi baterako betetzeko tasak ehuneko 8tik behera egon behar du, arlo bakoitzean, aldiaren amaieran. TASEN BALIOZKOTASUNA BALDINTZA HAUEK BETETZEAREN MENDE GELDITZEN DA.
7. Hautaketa-prozesuak: berariazkoak, irekiak eta lehia libre, berdintasun, merituz, gaitasun eta publikotasun printzipioak bermatuta.
8. Negoziatu ahal izango dira Estatuko Administrazio Orokorreko eta Autonomia Erkidegoetako eta Toki-Erakundeetako lurralde-eremu bakoitzean.
9. Prozesu horiek garatzeko, Administrazio desberdinen arteko koordinazioa posible egiten duten neurriak artikulatu daitezke.
10. MUGAK: Gastu-gehikuntzarik ez, giza-baliabideen gehikuntzarik ez.
11. Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioari jakinarazi behar zaio aldi baterako zenbat plaza dauden, bai eta ISPA sistemaren bidezko egonkortze-prozesuen emaitzak ere.

Arau horiek guztiek oinarrizko izaera dute eta Konstituzioaren 149.1.13a eta 156.1 artikuluen babespean ematen dira.

V.- Dena den, aurreko puntuan arrazoitu diren argudioak zalantzan jarri daitezke, izan ere, gaurko egunean, ez daude onartuta Estatuko 2019ko Aurrekontu Orokorrak, eta horiek urtebeteko iraupena izanik (urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean), hauen isilbidezko luzapena zalantzan jartzen da, batik bat, Lan eskaintza Publikoari dagokionez eta birjarpen tasaren mugaz hitz egiten ari garenean. Hala eta guztiz ere, 2018. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorri jarraituz, birjarpen tasa betetzen da eskaintza publikoan egiten den proposamenari begira, 2018. urtean bost jubilazio egon zirelako.



TOLOSAKO
UDALA

VI.- Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duenak, bere 37.1 artikulua l) atalean xedaturikoaren arabera, lan eskaintza publikoetan ezarri beharreko irizpide orokorrak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Aipatu diren irizpide orokorrekin dagokienez, hauexek planteatzen dira:

- 2018. urtean Udalbatzak onartutako Enplegu Planak aurreikusten zuen langileen aldi baterako zein behin-behineko portzentaia kontuan hartuta, beste hainbat neurriren artean, plantilla egonkortzeko prozesuak abian jartzea, besteen artean, egonkortze prozesuak eta kontsolidazio prozesuak.

- Udaltzainen arloan zehazki, 4/1992 Legearen azken aldaketak (2019ko uztailekoak, hain zuzen ere), hutsik dauden plazak Lan Eskaintza Publikoan onartu behar direla adierazten du.

- Lan Eskaintza diseinatzerako garaian, sailen/azpisailen arteko banaketa proportzional bat egiten saiatu da, sail/azpisail bateko langile guztiak eskaintza berean ez sartzeko helburuarekin.

- Halaber, mota guztietako prozesuak egotea proposatu da, hau da, barne sustapenak, egonkortze prozesuak, hautaketa irekiak eta kontsolidazio prozesuak, proportzionaltasuna eta oreka mantentzeko.

Zentzu horretan, 2019ko Lan Eskaintza Publikoa dela-eta ordezkari sindikalekin bilerak egin dira azaroaren 20an, eta beren adostasuna eman diote egindako proposamenari.

VII.- Bestalde, azpimarratu beharra dago Lan Eskaintza Publikoan aipatu diren lanpostu eta plaza guztiek aurrekontu-zuzkidura dutela udal aurrekontuetan.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Udaleko 2019ko ekitaldiko Lan Eskaintza Publikoa, honako honen arabera:



TOLOSAKO
UDALA

1.- KARRERAKO FUNTZIONARIOAK: LANPOSTUAK BETETZEA

1.- IZENA: Diruzaina

ESKALA: Gaikuntza nazionala

AZPIESKALA: Kontuhartzailletza-diruzaintza.

MOTA: bigarrena.

SAILKAPEN TALDEA: A

AZPITALDEA: A1

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: librea

HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa arrunta, hornitzea.

2.- PLAZAK HORNITZEA (ENPLEGUA EGONKORTZEKO JARDUNBIDEA)

1.- IZENA: peoia

ESKALA: Administrazio Berezia

AZPIESKALA: Zerbitzu Bereziak

SAILKAPEN TALDEA: E

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 1. HE, derrigortasun gabe

LANPOSTU KOPURUA: 2

TXANDA: librea

HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea.

2.- IZENA: arkitektoa

ESKALA: Administrazio berezia

AZPIESKALA: Teknikoa

SAILKAPEN TALDEA: A1

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea

3.- IZENA: Berdintasun teknikaria (I)

ESKALA: Administrazio Orokorra

AZPIESKALA: Teknikoa

SAILKAPEN TALDEA: A2

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa

LANPOSTU KOPURUA: 1

TXANDA: irekia

HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea



TOLOSAKO
UDALA

4.- IZENA: ikuskatzaile-delineatzailea
ESKALA: Administrazio Berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: C1
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea

5.- IZENA: balio anitzeko laguntzailea
ESKALA: Administrazio Orokorra
AZPIESKALA: Laguntzailea
SAILKAPEN TALDEA: C2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea

6.- IZENA: udaltzaina
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Zerbitzu bereziak
SAILKAPEN TALDEA: C1
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 2. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 3
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa, enplegua egonkortzeko jardunbidea

3.- PLAZAK HORNITZEA (LIBREA)

1.- IZENA: arkitekto-teknikoa
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 2
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.

2.- IZENA: Kontratazioko teknikaria
ESKALA: Administrazio orokorra
AZPIESKALA: Teknikoa



TOLOSAKO
UDALA

SAILKAPEN TALDEA: A1
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.

3.- IZENA: Txistulari Bandako zuzendaria eta txistu irakaslea
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.

4.- IZENA: udaltzaina
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Zerbitzu bereziak
SAILKAPEN TALDEA: C1
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 2. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 4
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.

4.- PLAZAK HORNITZEA (EPAI BIDEZ)

1.- IZENA: biolontxelo irakaslea
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.

2.- IZENA: perkusio irakaslea
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.



TOLOSAKO
UDALA

3.- IZENA: tronpa irakaslea
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.

4.- IZENA: dultzaina irakaslea
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.

5.- IZENA: tronpeta irakaslea
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.

6.- IZENA: oboe irakaslea
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.

7.- IZENA: kontrabaxu irakaslea
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.



TOLOSAKO
UDALA

8.- IZENA: koral irakaslea
ESKALA: Administrazio berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 3. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa.

5.- PLAZAK HORNITZEA (ENPLEGUA KONTOLIDATZEKO JARDUNBIDEA)

1.- IZENA: kirol instalazioetako kudeatzailea
ESKALA: Administrazio Berezia
AZPIESKALA: Teknikoa
SAILKAPEN TALDEA: A2
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA: 4. HE derrigorrezkoa
LANPOSTU KOPURUA: 1
TXANDA: irekia
HAUTATZE-SISTEMA: lehiaketa-oposizioa, enplegua kontsolidatzeko jardunbidea

BIGARRENA.- 2019. ekitaldiko Lan eskaintza publikoa argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Udaletxeko iragarki taulan.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauen berri ematea Kontuhartzaitza Sailari eta Udaleko langileen ordezkariari.

3. 2019/1951 DEKRETUAREN BERRI EMATEA: 2019/55 FAKTURA-ZERRENDA.

Idazkariak 2019/1951 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2019/1951

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumeneekin bat etorrita eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



TOLOSAKO
UDALA

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hau:

55 zenbakia duena, 413.486,14 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak ondorengo hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- *Onartzea ondorengo faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

55 zenbakia duena, 413.486,14 eurokoa.

BIGARRENA.- *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

Tolosan, 2019ko azaroaren 21ean

Zinegotzi Delegatuak

*Nire aurrean,
idazkaria*

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO AZAROAREN 8TIK 15ERA (DK2019/1859-2019/1910).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2019ko azaroaren 8tik15era bitartean (DK 2019/1859-2019/1910) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei. Honako hauek dira:



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1859	2019	08/11/2019	HIRIGINTZA	MADERAS GARMENDIA S.L.RI ERREKERIMENDUA BIALTZEA
1860	2019	08/11/2019	IDAZKARITZA	BOTERE OROKORRA EMATEA J.G. I. ABOKATUARI UDALA ORDEZKATZEKO.
1861	2019	08/11/2019	AZOKAK	TALOEN POSTUA JARTZEKO EZETZA-AZAROAK 16
1862	2019	08/11/2019	OBRAK	BIDEBIETA AUZOA ETA BIZKAIA KALEA URBANIZATZEKO OBREN FIDANTZA ITZULKETAREN ONARPENA
1863	2019	08/11/2019	IDAZKARITZA	ARTXIPIAGA PLAZAKO 18 (-3) APARKALEKUAREN ERABILERA ESKUBIDEAREN ESKUALDAKETA ONARTZEA
1864	2019	11/11/2019	EUSKERA	TOLOSA&CO-RI 2018KO HITZARMENAREN % 25A ORDAINTZEA.
1865	2019	11/11/2019	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 26KO TEILATUA GUZTIZ ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA
1866	2019	11/11/2019	HIRIGINTZA	FELIPE GORRITI PLAZA 2KO FATXADA KONPONTZEKO OBRA BAIMENA
1867	2019	11/11/2019	IDAZKARITZA	EUKOLAKO KONTSEILUETARAKO UDAL ORDEZKARIAREN IZENDAPENA
1868	2019	11/11/2019	AZOKAK	A. A.RI BAIMENA EMATEA TALOEN POSTUA JARTZEKO AZAROAREN 16AN
1869	2019	11/11/2019	HIRIGINTZA	IGERALDE 17 BEHE ESKUINEKO OBRAN ALDAKETAK ONARTZEA. ESPEDIENTEA DA.2019H3340091
1870	2019	11/11/2019	HIRIGINTZA	GERNIKAKO ARBOLA 6 ERAIKINEKO EIT TXOSTENEAN JASOTAKOA BETETZEKO EGIKARITZE AGINDUA
1871	2019	11/11/2019	PERTSONALA	ERRENTA TEKNIKARI DEIALDIRAKO EPAIMAHAI DEEN ORDAINKETA
1872	2019	12/11/2019	IDAZKARITZA	2019ERRE0015 KALTE ERREKLAMAZIOA EZ ONARTZEA
1873	2019	12/11/2019	HIRIGINTZA	SANTA LUTZIA 13 ZENTROKO FATXADAN ATE BAT JARTZEKO LIZENTZIA EMATEA



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1874	2019	12/11/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI KALEA 46-1-ESKUBI ETXEBIZITZARA GAS HORNIDURA INSTALAZIOA EGITEKO BAIMENA
1875	2019	12/11/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	M.R.S.RI AZAROAN ETA ABENDUAN DIRULAGUNTZA EMATEA
1876	2019	12/11/2019	IDAZKARITZA	ALHONDIGAKO GARAJE BATEN ESKUALDAKETA. SAN FRANTZISKOTARREN KOMENTUA.
1877	2019	12/11/2019	IDAZKARITZA	2019ERRE0023 KALTE ERREKLAMAZIOAREN HASIERA.
1878	2019	12/11/2019	UDALTAINGOA	TRAFIKO SALAKETA BATI DAGOKION DIRU ITZULKETA ONARTZEA
1879	2019	12/11/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	CASER RESIDENCIAL SA: ETXEZ ETXEO ZERBITZUA - ABUZTUKO FAKTURA.
1880	2019	12/11/2019	HIRIGINTZA	SOLDADU KALEA 8KO ERAIKINAREN ERAISPEN OBREI DAGOKION OBRA AMAIERAKO LIKIDAZIOA ETA EZARRITAKO FIDANTZAK ITZULTZEA
1881	2019	12/11/2019	HIRIGINTZA	BEOTIBAR KALEA 4KO FATXADA, TEILATUKO EGITURA, FIBROZEMENTU ELEMENTUAK KENDU ETA ESKAILERA ETA PATIOAK KONPONTZEO OBRA BAIMEN ESKAERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
1882	2019	12/11/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAN 2019 ETA 2020 URTEETAKO EGUBERRIETAKO ARGITERIA ETA APAIINGARRIEN HORNIDURA, MUNTAKETA, DESMUNTAKETA ETA MANTENTZE LANAK EGITEKO KONTRATUA ESLEITZEA.
1883	2019	12/11/2019	IDAZKARITZA	TOLOSAKO ARGITERIA PUBLIKOAN ENERGIA AURREZTEKO RETROLED EKIPOEN HORNIDURA KONTRATUA ESLEITZEA.
1884	2019	12/11/2019	HIRIGINTZA	ERREMENTARI 11KO HAINBAT KONPONKETA EGITEKO OBRA BAIMENA
1885	2019	13/11/2019	IDAZKARITZA	2019ERRE0024 ESPEDIENTEAREN HASIERA
1886	2019	13/11/2019	PERTSONALA	B.M.O. (ESKAERAREN ERANTZUNA)
1887	2019	13/11/2019	HIRIGINTZA	RONDILLA KALEA 18KO BALKOIAK KONPONTZEKO OBRA BAIMENA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1888	2019	13/11/2019	HIRIGINTZA	ERRREMENTARI KALEA 5EKO FATXADAK KONPONTZEKO OBRARI DAGOZKION OBRA AMAIERAKO AGIRIAK AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
1889	2019	13/11/2019	AZOKAK	TOLOSAKO BABARRUNAREN FESTAREN ANTOLAKETA
1890	2019	13/11/2019	AZOKAK	BERRIZ PROGRAMA. 3 HIRUHILEKOA ORDAINTZEA MIREN EDURNE ORTIZ ZABALARI
1891	2019	13/11/2019	AZOKAK	L. H.-I EZETZA AZAROAREN 16RAKO
1892	2019	13/11/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	TOLOSAKO UDALAK GAUEKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO UDAL ZERBITZUA ERAIKITZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK EMAN DUEN DIRULAGUNTZARI UKO EGITEA.
1893	2019	13/11/2019	HIRIGINTZA	ZERKAUSIA 2-1.ESKUBIA ETXEBIZITZA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA
1894	2019	13/11/2019	OBRAK	BEDAIO AUZOAN FRONTOIAREN ONDOKO KALEA BERRURBANIZATZEKO OBRAREN 2.ZIURTAGIRIA ONARTZEA
1895	2019	13/11/2019	KONTUHARTZAILETZA	ETXEBIZITZA HUTSEN ERREKARGUA EZ APLIKATZEA
1896	2019	13/11/2019	KONTUHARTZAILETZA	ETXEBIZITZA HUTSEN ERREKARGUA EZ APLIKATZEA
1897	2019	13/11/2019	KONTUHARTZAILETZA	ETXEBIZITZA HUTSEN ERREKARGUA EZ APLIKATZEA
1898	2019	14/11/2019	HIRIGINTZA	ANDRE MARIA KALEA 1 ERAIKINEAN ESTALKIKO EGITURA BERRIA ERAIKI, TEILATUA, FATXADAK ETA BALKOIAK ERABERRITU, TEILATU AZPIKO ZORUKO TAULA BERRIA JARTZEKO OBRA BAIMENARI DAGOZKION AMAIERAKO AGIRIAK AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA, AMAIERAKO LIKIDAZIO ETA FIDANTZAK BUELTATZEA
1899	2019	14/11/2019	HIRIGINTZA	LARRAMENDI KALEA 6 BEHEAN OBRAK HASTEKO BAIMENA EMATEA
1900	2019	14/11/2019	HIRIGINTZA	SOLDADU 8KO LEHEN ERABILERA BAIMEN ESKAERAKO AGIRIAK ZUZENTZEKO ERREKERIMENDUA



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1901	2019	14/11/2019	IDAZKARITZA	SAN BLAS 10EAN ERROLDATZEKO BAIMENAREN ERANTZUNA. EZEZKOA ESATEA
1902	2019	14/11/2019	OBRAK	UZTURPE FRONTOIKO TEILATUA KONPONTZEKO PROIEKTUA EZ ONARTZEA
1903	2019	14/11/2019	IDAZKARITZA	PLAZA ZAHARRA 2-4 JABEKIDEEN KUOTEN ORDAINKETA
1904	2019	14/11/2019	GIZARTE ZERBITZUAK	F.O.C. PERTSONARI UZTURREKO BALIOANITZEKO ETXEBIZITZA ALOKAIRUAN EMATEA.
1905	2019	15/11/2019	IDAZKARITZA	TRIANGULOKO GARAJE BATEN TRANSMISIOA. IDOIA GARMENDIA CAMIO.
1906	2019	15/11/2019	AZOKAK	BOZGORAILUAK RONDILLA, 1-1 EZKERREKO ETXEBIZITZATIK KENTZEKO ONARTZEA
1907	2019	15/11/2019	HIRIGINTZA	DISZIPLINA ESPEDIENTEA RONDILLA KALEA 33 BEHEA (KEXAK SOINUENGATIK)
1908	2019	15/11/2019	HIRIGINTZA	DISZIPLINA ESPEDIENTEA RONDILLA KALEA 33 BEHEAN TOLDOA BAIMENIK GABE JARTZEAGATIK
1909	2019	15/11/2019	AZOKAK	TOLOSAKO BABARRUNA ELKARTEAREN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEAN LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA
1910	2019	15/11/2019	AZOKAK	A. A.REN IDATZIARI ERANTZUNA

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Gai zerrendako gaiak aztertu ondoren, martxoaren 22ko asteburuan antolatu nahi den Gipuzkoa Encounter dela eta, Jose M^a Villanueva Telleria zinegotziak Kirol taldeak azaldutako desadostasunaren berri eman die batzarkideei, kirol jarduera gehien dagoen asteburua delako. Eskatzen dute, beren jardueran ez oztopatzeko, data finkatu aurretik beraien adostea data, orain dela bi urte idatziz eskatu zuten bezala.

Alkatearen erantzuna honako hau izan da: kontuan hartu behar da herriari ekartzen dion onura:

- Bizkaia eta Araban, hiriburuetan egiten dira; Gipuzkoan, berriz, Tolosan.
- Maila altuko ekintzak antolatzen dira teknologia mailan.



TOLOSAKO
UDALA

- Baloratu behar da mesedegarria den ala kaltegarria; gure ustez, mantendu egin behar da, onura kaltea baino handiagoa delako.
- Tolosaldea Garatzenekin kontsulta egingo da.

Eta besterik gabe, bilera amaituzat jo da 11:55ean.

ALKATEA

IDAZKARIA